

ROSA VALVERDE ETA KUTXAK
Traste arrunten barruan
ZUK ZER IKUSTEN DUZU?

Testua: MAIALEN LUJANBIO

Irudiak: ARRATE RODRIGUEZ

BAGARA saila

[Zuzendariak: Garazi Ansa, Haizea Barcenilla]

ISBN: 978-84-9172-310-3

Azal gogorreko liburua. 24,5 x 21,5 cm. 40 or.

Salneurria: 17,00 €



- **Gaia:** arte garaikidea eta euskal emakume sortzaileak. Rosa Valverderen proposamen estetikoaren ezagutza.
- **Norentzat:** adin guztietarako –8 urtetik aurrera–.
- **Alderdi azpimarragarriak:** sormenaren inguruko hausnarketa, lan artistiko baten proposamen praktikoa, irudimenaren lanketa, eguneroko objektuetatik sortutako sorkuntza-lanak, emakumea artean bistaratzea.

Traste arrunten barruan, ondo begiratu gero, istorio harrigarriak aurkitzen dira...

...edo asmatu egin daitezke.

Istorio harrigarriak gordetzeko zurezko kutxa bat egingo dugu [...]

Traste arrunten barruan zuk zer ikusten duzu? album ilustratua Maialen Lujanbio Zugasti eta Arrate Rodriguez Martinen elkarlanetik sortutako proposamena da. Rosa Valverderen artelanetatik abiatuta, liburuaren helburua artistaren lana ezagutaraztea da, sormena pizten duen joko artistiko baten bitartez. Valverde pinturan ere ibili zen arren, album honek kutxen bitartez sortutako lanari eskaintzen dio arreta.

Irakurleak kutxa propio bati forma emateko ideiak eta gomendioak topatuko ditu liburuan zehar, objektuen arteko konbinaketak eskaintzen dituen aukerak erabiliaz.

ROSA VALVERDE LAMSFUS
(Donostia, 1953 - Azkaine, 2015)



Pintura, marrazkia eta kutxen barnean sortutako eszenak landu zituen artista izan zen Rosa Valverde. Bere konposizioetan ezustekoak eta objektuen arteko harreman bereziak sortzen zituen, mundu oniriko bat irudikatuz. Artista originala izan zen, kategorizatzeko zaila, unibertso propio, koloretsu eta bizia sortu eta partekatzeko gai izan zena.

Maialen Lujanbio Zugasti (Hernani, 1976)

Bertsolaria da. Hitzekin lan egitea gustatzen zaio. Hitzak oratzea, moldatzea eta bihurtzea.



Hitzen esanahiak, hitzen hotsak, hitzen forma eta hitzen hoskidetasuna. Hitzak deskonposatzen ditu si la ba tan eta gero h i z k i t a n e t a o n g i a t e r a t z e n e z z a i o n e a n d e n a b a t e g i n e t a b e r r i z h a s t e n d a .

Gehienetan bapatean aritzen da bertsotan, boz gora inprobisatzen, baina tarteka, honakoa bezalako istorioak isilka eta idatziz sortzen ditu. Arte ederrak ikasi zituen Bilbon eta hitzez marrazten du mundua.

Arrate Rodriguez Martin (Orereta, 1984)



Begiz ikusten duena, buruan barrena ibili, bihotzeko tanta batzuekin nahastu eta

besoan behera eskua gartsuki mugituz pintzeletik irteten zaio orban bizi-bizietan. Kolore indartsuek liluratzen baitute Arrate. Eta gauzen formak.

Oreretan hasi zen irudi eta margoen mundua arakatzeko; Bilbon ikasi zuen Arte Ederrak, Bartzelonan ilustrazioan hezi, Mexikon aldi batez berrelikatu zituen begiak eta egun Hendaian sortzen ditu orain eskutan daukazun hauen moduko margolanak eta beste hainbat arte-lan txundigarri.